



# Alemaniano Nazioarteko Folklore Jaialdian hartuko du parte Alurr taldeak

ELDUAIN ▶

**Zeberioik eta San Miguelek finala galdu dute**

Ezkurak eta Olazarrek irabazi zuten (40-37) ▶ 7

**IBARRA** ▶ Atzo abiatu eta lau egunez Lusazian izango dira euskal dantzaren ordezkari

**HELBURUA** ▶ «Euskal kultura eta dantzaren bitartez beste herritako kulturekin elkartrukea sustatzea» ▶ 6



## Beotibar pilotalekua, 'La casa de mi padre' filmerako grabaketa gune

**TOLOSA** ▶ *La casa de mi padre* filmaren eszena batzuk grabatzen ari dira Beotibar pilotalekuan. Gorka Merchan zuzendariaren lehen film honetan Carmelo Gomez, Emma Suarez, Veronica Etxegi eta Juan Jose Ballesta dira protagonista nagusiak. i. t. ▶ 2-3



LEITZA ▶

## Erail zutela 6 urte bete direnean, Mugikari omenaldia

UPNren ordezkari ugari bildu ziren ETAk zinegotzia hil zuen lekuan ▶ 7

### ZABALA DESGUAZEA

- Plan Prebererako zertifikatuak egiten ditugu.
- Txatarerako kotxeak biltzen ditugu.

Tel./Faxa: 943 67 17 90 • 696 593 347  
Beotibar Industriegunea, 18 • BELAUNTZA

Beharpenak **-%50**

# Amane



Erniobera 5 • Billabona • 943 69 68 11

## KULTURA ▶

# Hau Tolosa-wood da jaun andreok



Gorka Merchan zuzendariaren 'La casa de mi padre' filma ari dira grabatzen Beotibar pilotalekuan; Juan Jose Ballesta eta Carmelo Gomez aktore ezagunak ariko dira bertan pilotari paperean

N. LATABURU - I. TERRADILLOS

**P**robatzera goaz, isiltasuna, mesedez». Tolosako Beotibar pilotalekua pantaila handirako film luze baten eszenatoki bilakatu zen atzo. Izan ere, aste osoan zehar Gorka Merchan zuzendariaren *La casa de mi padre* filma grabatuko dute bertan. Hilabete inguru darama lantaldeak Euskal Herriko txoko ezberdinetan lanean —Errenteria, Hondarribia, Zarautz eta Hernanin— eta orain Tolosaren txanda heldu da.

Filmak Txomin pilotariaren istorioa kontatzen du. Argentinan erbesteratua egon ostean, Euskal Herrira bueltatzen da gaixorik dagoen bere anaia bisitatzen. Bertan familiarteko tentsioarekin egingo du topo, bai eta bertako gatazka politiko eta sozialekin ere. Carmelo Gomezek betetzen du Txominen papera. «Filmak berriz ere elkartzen diren gizakiei buruzkoa da, leku eta une zehatz baten», azaldu du aktoreak.

Gomezekin batera, izen handiko aktoreek hartzen dute parte Merchanteren lehen lan honetan: Emma Suarez, Juan Jose Ballesta eta Veronica Etxe-gi. Halaber, euskal zinemagin-



tzan aurpegi ezagunak diren hainbat aktorek ere hartuko dute parte, Goenkaleko aktore batzuk, esaterako.

Zuzendaria «lusioz beteta» azaldu da eta «gogorra den arren, asko gozatzen» ari dela aitortu du.

## Bi astez entrenatzen

Carmelo Gomezek azaldu duenez, «pilotaren inguruan eszena asko grabatu behar ditugu; hori dela eta, ekainean, bi astez pilotan entrenatzen aritu ginen». Hain zuzen, Tolosako Beotibar pilotalekuan izan ziren, Anizeto Lazkano irakasle lanetan aritu zelarik. «Eszena batzuk guk egingo ditugu, baina, dena den, bikoizlariak beharko ditugu», azaldu du Gomezek; «oso kirol gogorra da», gaineratu du.

Pilotarekin batera euskaraz hitz batzuk ahoskatzen ere ikasi dute aktoreek. Juan Jose Ballestak zioenez, «oso ondo pasa dut hizkuntza ikasten; pilotarekin, berriz, ni ahalik eta indartsuen jotzen saiatzen naiz».

Azkenaldian Tolosa telebista kamera askoren topagune bihurtu da: Hau Tolosa-wood da jaun-andreok.

Atzo, Beotibar pilotalekuan aritu ziren grabaketa lanean. i. t.



Aste osoan egongo da pilotalekuan *La casa de mi padre* pelikulako lantaldea. Ohiko partiden jokaleku ordez, zinemarako eskenatoki erraldoia dirudi frontoiak. i. t.

**ANIZETO LAZKANO** ▶ PILOTARI OHIA

## «Oso esperientzia polita izan da aktoreei pilotan irakastea»

Anizeto Lazkano tolosarrak pilotari lotuta eman du bere bizitzako zati handi bat, profesional mailan jokatzeko hasieran, eta gero entrenatzaile bezala. *La casa de mi padre* filmaren kasuan ere, entrenatzaile bezala aritu da lanean, aktoreak prestatzen.

**Pelikulako aktoreei pilotan nola jokatzeko aritu zara irakasten.**

Bai, hala da. Hamabost egunez eta egunean bi orduz egon gara Beotibar pilotalekuan pilotan nola egiten den irakasten. Ez da batere lan erraza

izan, izan ere, aktore hauetako askorentzat, Juan Jose Ballesterentzat edo Carmelo Gomezentzat, esaterako, oso ezezaguna da kirol hau, eta hasiera hasieratik azaldu behar izan diegu dena. Lehendabizi, teoria moduan edo, azalpen txiki batzuk eman nizkien kirolaren inguruan, eta gero praktikari dagokionean, jarrera egoikiak, eskua nola jarri, esaten direnak... erakutsi nizkien. Orain grabatzen ari dira, eta ni ere hor nago aktoreei aholkuak ematen frontoian daudenean.



Juan Jose Ballester aktorea eta Anizeto Lazkano. i. t.

**Erraz ikasi al dute?**

Esan beharra dago kostatzen zaiela, baina pixkanaka ikasten joan dira. Pilota leunekin aritu gara jokatzeko, kexatu egiten baitziren min hartzen zutela eta.

**Beraz, pilotan ederki jokatzen dutela ikusi ahalko dugu zinemari.**

Hori irudituko zaigu, behintzat. Beraiek izango dira hemen Beotibar pilotalekuan pilotan jokatzeko ikusiko ditugunak, eta maila handia emanez, gainera. Baina, benetan, ordezkoak izango dira pilotakada zailenak emango dituztenak, Pefiagarikano eta Ongai, hain zuzen ere.

**Zer moduzko esperientzia izan da pelikula batean parte-hartzearena?**

Oso ona. Oso gustura aritu gara, bai ikasten, bai eta orain grabatzen ari garenean ere. ◀

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK  
URTEURRENAK  
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko  
HITZAn jarri eta Gipuzkoako  
beste 4 Hitzetan DOAN  
agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN  
120.000 IRAKURLE

ESKELAK  
19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
Tel.: 943 65 56 95

**hilberria** ▶

✝ **Elixabete Galarraga Galarraga**  
ANDREA  
("Pipo" Barrenaren alarguna)

ATZO hil zen, 78 urte zituela,  
Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.  
-Golan bego-

Haren seme-alabak: Eli eta Josetxo Yanci, Josu eta Reme Amores; bilobak: Lide, Mikel eta Malen; ahizpak: Aranxa eta Miren; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizugu eta arren etor zaitezela BIHAR, ASTE-AZKENA, arratsaldeko ZAZPIAK ETA ERDIETAN, SAN BIZENTE parrokia elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

**HELBIDEA:** Askatasunaren hiribidea, 6 **DONOSTIA**, 2007ko uztailaren 17a  
oharra ▶ Gorpu beila Zorroagako Udal Tanatorioan egongo da eguerdikio 12:00ak arte.

ASTEASU ▶ SANTAMAÑA JAIAK

# Patxi Urizarrek eta Nerea Amilibiak irabazi dute berriro Santamaña krosa

Irabazleek ez dute lortu marka hobetzea; Mus Txapelketan Esteban Irazu eta Jesus Mari Beldarrainek irabazi dute; bihar egingo dute Tranpazuloren iguera

**IMANOL GARCIA**

Iaz bezala, Patxi Urizar billabonatarak eta Nerea Amilibia zizurkildarrak irabazi dute Santamaña Krosa. Urizarrek 28'04"ko denbora egin du eta Amilibiak 34'40"koa. Ezin izan dute probaren markak hautsi. Gizonezkoetan bigarrena Josu Arregi (28'04") eta hirugarrena Emilio Garcia (28'52") izan dira. Emakumezkoetan Romy Mey (35'12") bigarren eta Paki Lizaso (35'39") hirugarren izan dira. Astesako 19 korrikalari ateratu dira eta lehenengoak Pello Izagirre eta Isabel Dumall izan dira.

Zazpigarren aldiz da krosa antolatzen dutela eta aurtengoan 92 parte-hartzaile aritu dira, horietatik 10 emakumezkoak. Probaren ondoren hamaiketako eman zuten eta parte-hartzaileek hainbat produkturen zozketatan parte hartu zuten.

Nerea Amilibia zizurkildarrak ez zuten uste irabazterik izango zuzenik. Romy Mey ale-

**EGITARRAUA ▶**

**BIHAR**

10:15. Festen hasiera. Tranpazuloren iguera eta txupinazoa.

11:15. Meza nagusia. Ondoren hamaiketako.

13:00. Herri kirolak ballararen artelan. Ondoren Mañuporta eta Zeberio bertsolariak eta Kupela taldea. 17:30. Kalejira. **KALEJIRA Gauean.** Kupela taldea. Goizaldera, bokolatada.

**HILAK 20, OSTIRALA**  
21:00. Hem alana.

**Gauean.** Laja eta Narbaiza trikitilariak. Goizaldera, bokolatada.

**HILAK 21, LARUNBATA**

17:00. Haur jolasak. 18:30. VII. Nazioarteko Toka Txapelketa. **Gauean.** Epelde eta Luburdi trikitilariak. Goizaldera, bokolatada.

**HILAK 22, IGANDEA**  
09:30. Andazarrakko XXIII. Iguera (federagubeko berrindarientzat).

11:15. Meza nagusia. Ondoren, herri kirolen saioa. Aizkolariak: Agite eta Xabier Alkazalete, Ollasagasi eta Jokin Alkazalete. Harrijostakariak: Haimar Irigoin eta Lertxundi. Bertsolariak: Irazu eta Telleria. Trikitilariak: Laja, Ziolar eta Egiuren. 17:30. VII. Zaldi Lasterketa. **Gauean.** Laja, Ziolar eta Egiuren trikitilariak saioa emango dute. **Gauean.** Tranpazuloren jeltserak festei amaiera emango diote.

maniarrek azkar hasi baitzuten krosa. «Aurretik izan nuen, 150 metroko abantaila hartu zuen. Halere, aldapa gora hasi zirenean, Amilibia gerturazten hasi zen. «Hiru mendia da. Hor aurrea hartu nion». Amilibiak marka haustea nahi zuen aurrean. Antzane Argazeik du marka hori, 33'21" denborarekin. «Sentazio onak nituen, eta

saiaitu nintzen marka hobetzen. Beroa egiten dienean ondo moldatzen naiz eta orain arteko denbora onena egin dut, baina ez nuen lortu. Ez dut uste nik marka hori hausterik izango dudarik». Krosaz gain, atzoko beste ekitaldia XII. Mus Txapelketa izan zen. Esteban Irazu eta Jesus Mari Beldarrainek irabazi

zuten eta Aitor Alkain eta Inazio Lizaso aurka. «Santamaña jaien lehen bi ekitaldiak iraten dira horiek, baina hasiera ofiziala bihar emango dute. Tranpazuloren iguerarekin. Egunean zehar hainbat ekitaldi izango dituzte Ostrialean, larunbatean eta igandean izango dute jarraipena festek.



Urizar helmetingazten. A. GAZTALA



Amilibia, Ekaitz semearekin. A.G.



Pello Izagirre eta Isabel Dumall, lehen astesurrak. ANDER OTEZABAL



Ekierterik hasita, Paki Lizaso, Emilio Garcia, Josu Arregi, Romy Mey, Nerea Amilibia eta Patxi Urizar. ANDER OTEZABAL



Ez duzu beste ezer behar etxea betetzeko.

TB DIGITALA  
TELEFONOA  
BANDA ZABALA } 3€ hilean.  
3 hilabetez

Deitu 17171a edo etorri Euskaltelen saltokietara.

euskaltel ZURETZAT

Santamaña Krosaren irabazleak eta bigarrenak 2007ko uztailaren 17an irabazi zuten. Irabazleak 28'04"ko denbora egin du eta bigarrena 34'40"koa. Ezin izan dute probaren markak hautsi. Gizonezkoetan bigarrena Josu Arregi (28'04") eta hirugarrena Emilio Garcia (28'52") izan dira. Emakumezkoetan Romy Mey (35'12") bigarren eta Paki Lizaso (35'39") hirugarren izan dira. Astesako 19 korrikalari ateratu dira eta lehenengoak Pello Izagirre eta Isabel Dumall izan dira. Zazpigarren aldiz da krosa antolatzen dutela eta aurtengoan 92 parte-hartzaile aritu dira, horietatik 10 emakumezkoak. Probaren ondoren hamaiketako eman zuten eta parte-hartzaileek hainbat produkturen zozketatan parte hartu zuten. Nerea Amilibia zizurkildarrak ez zuten uste irabazterik izango zuzenik. Romy Mey alemaniarrek azkar hasi baitzuten krosa. «Aurretik izan nuen, 150 metroko abantaila hartu zuen. Halere, aldapa gora hasi zirenean, Amilibia gerturazten hasi zen. «Hiru mendia da. Hor aurrea hartu nion». Amilibiak marka haustea nahi zuen aurrean. Antzane Argazeik du marka hori, 33'21" denborarekin. «Sentazio onak nituen, eta saiaitu nintzen marka hobetzen. Beroa egiten dienean ondo moldatzen naiz eta orain arteko denbora onena egin dut, baina ez nuen lortu. Ez dut uste nik marka hori hausterik izango dudarik». Krosaz gain, atzoko beste ekitaldia XII. Mus Txapelketa izan zen. Esteban Irazu eta Jesus Mari Beldarrainek irabazi zuten eta Aitor Alkain eta Inazio Lizaso aurka. «Santamaña jaien lehen bi ekitaldiak iraten dira horiek, baina hasiera ofiziala bihar emango dute. Tranpazuloren iguerarekin. Egunean zehar hainbat ekitaldi izango dituzte Ostrialean, larunbatean eta igandean izango dute jarraipena festek.

IBARRA ▶ KULTURA

# Alurr Dantza Taldea Alemanian euskal dantzaren ordezkari

Lau egunetan Lusaziako Nazioarteko Folklore Jaialdian ibarretrek dantza emanaldiak eskainiko dituzte



Atzo irten baziren ere, etzi iritsiko dira Lusaziara (Alemania) Alurr Dantza Taldeko dantzariak. A. IMAZ

## ASIER IMAZ

Ibarrako Alurr Dantza Taldea atzo arratsaldean irten zen Alemania iparralderuntz, bertan hilaren 19tik 23ra burutuko den nazioarteko jaialdian parte hartzeko asmoz. Ia lau egunetako bidaia dute beraz aurretik ibarretrek, geldialdiak barne. Itzulerako bidaia ere 3 egunetako izango da, hori bai, tartean Parisen geratu eta Euro Disney-ra joateko aukera izango dute.

Domowina elkarteak taldeko 25 kide gonbidatu ditu. Hori dela eta, Alurr Dantza Taldeko 15 eta 17 urte bitarteko 15 gaz-

tekin eta 18 eta 25 urte bitarteko 9 gaztekin egingo dute bidaia arduradunarekin batera. Helburuari dagokionez berriz, «euskal dantza eta kulturaren bitartez beste herrietako kulturetara gerturatzea eta elkartrukak sustatzea» dela jakinarazi dute Alurretik. «kultura sorabiarrekiko aparteko sentsibilitatea, jakinmina eta elkartasuna sortu eta sustatzeaz gain».

Sorabiar herriaren elkarte nagusia den Domowinak, aberria esan nahi du hizkuntza sorabiarrean, bi urtez behin antolatzen duen nazioarteko jaialdian eta haren inguruko

jarduera kulturaletan parte hartuko du Alurrek. Folklore elkartruke honek sona handia du; aurtengoan mundu gutziko 200 talde baino gehiagok bertan parte hartzeko interesa erakutsi badute ere, antolaketa

batzordeak hala erabakita, bederatzik soilik izango dute horretarako aukera. Bederatzi horien artean, Euskal Herria ordezkatzu, Ibarrako Alurr Dantza Taldea egongo da.

Lusaziako Nazioarteko Folklore Jaialdiaren antolaketa duela hamalau urte hasi zen, eta egun, Sorabiar herriaren eta kulturaren erakusleho bikaina bilakatu dela esan daiteke.

Era berean, kultura, etnia eta herri txikien topaketa eta elkartrukearako gune berezia da Bautzen eta Croswitz herrietan uztaila amaieran garatzen den nazioarteko jaialdia.

## Agenda beteta

Etzi iritxi orduko, 13:00etan, harrera jasoko dute Alurrekoek. Arratsaldean zehar, komunikabideen aurrean aurkezpena egingo dute, ondoren desfilea eta jaialdiari hasiera emateko.

Ostiralean, Behe Lusazian ibilaldia burutuko dute. Arratsaldean Nazioarteko folkloreak erakustaldia burutuko delarik Drachhausen-eko landetxe ezberdinetan.

Hurrengo egunean, larunbata, landetxetan barrena jarraituko dute dantza taldeek, musika, dantza eta abestiez lagundurik.

Azken egunean berriz, hilak 22an, 10:00etan meza aurrekusten da egitarauan. Ondoren artisautza azoka eta Domowina elkartearen Lehendakariaren harrera ofiziala. 13:00etan azken desfilea egingo dute. Ondoren, 16:30ean, Nazioarteko jaialdiaren finala jokatu da eta 19:30ean amaiera ekitaldia. Lau egun bertan igaro ondoren, hilak 23, astelehenean etxerako bidea hartuko dute.

## Asteburuan ipar eta hego



Alurr Dantza Taldea Ezpeletako Nazioarteko Gauargi jaialdian. HITZA

Iragan larunbatean Alurr Dantza Taldeak Ezpeletako Nazioarteko 11. Gauargi jaialdian parte hartu zuen. *Munduko haurrak eta dantzak* lelopean, Armenia, Bulgaria, Bachkortostan, Polonia, Eslovakia, Kamtchatka, Gaskonia

eta Euskal Herriatik joandako gaztetxoek dantza taldeak bildu ziren bertan.

Igandean berriz, iparraldean ordu txikietan utzi eta hegoaldean egin zuten bidaia, Alema- nian emanaldia eskaini baitzuten ibarretrek. ◀

LEABURU-TXARAMA ▶

## Gipuzkoako kostaldera bidaia hilaren 24ean

Leaburu-Txaramako Udalak eta Uli mankomunitateak Gipuzkoako kostara irteera antolatu dute hilaren 24erako. Izena eman nahi duenak, bihar izango du azken eguna, Txaramako kultur-osasun gunean edo Leaburuko udaletxean. Horretaz gain, 943 68 22 28 telefonoan ere izango da aukera. Bidaiak 25 euroko balioko du, Zumaian egingo den bazkaria barne.

LEITZA ▶

## Plazako Buruz buruko Txapelketa aurrera doa

Plazako III. Buruz buruko Txapelketa jokatzeko ari dira Leitzan. Iragan asteburuan Unai Olanok, finalerdietarako txartela lortu zuen Martin Telletxea kanpoan utzi ondoren (22-10). Lau finalerdiak hilaren 21ean, larunbata, 17:30ean jokatu zituzte. Oraingoz finalerdi bat bakarra dago ziurtatua. Alduntzin eta Olanoren artekoa. Finala berriz, abuztuaren 4 eta 5ean jokatu dute.

AHT ▶

## AHTren aurkako akanpadan parte hartzeko deialdia

Eskualdeko AHT Gelditu! Elkarlanak Aramaion (Araba) hilaren 27tik abuztuaren 5era egingo den akanpadan parte hartzeko deialdia luzatu du. 10 egunetan zehar, ekitaldi eta mintegi ugari egingo dira Abiadura Handiko Trenaren aurka. Horretaz gain, hilaren 28an, larunbata, AHTren obretara manifestazioa egingo dutela jakinarazi dute. Urbinatik (Araba) abiatuta.

LEITZA ▶

## Euskal Herriko Herriartekoan finalerdi gertu

Leitzak Nafarroako Herriarteko Txapelketa irabazi ondoren, Euskal Herriko Herriartekoan 2 eta 1 emaitza irabazten dio finalerdietan Maetztu (Araba) herriari. Hala eta guztiz ere, itzulerako partidak falta dira oraindik.

## iragarki laburrak ▶

### LANA

**Zaintzailea.** Tolosan, ebeko lanak egin eta bi urte zaintzeko emakume euskalduna behar da, goizez. Irailean hasteko. Interesatuak, deitu ondorengo telefonora 677 45 25 97.

**Sukaldaria.** Iturri-goxo jatekxan sukaldari laguntzailea behar dugu. Deitu: 943 69 12 10.

## ▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Eztabaida.** Nora joan zara edo nora joateko asmoa duzu uda honetan? Sartu gure webgunean eta idatzi zure bidaia edo asmoen inguruan. Horretaz gain, bertan bidaia gehiagoren berri izango dituzu ikusgai Eztabaida atalean.

LEITZA ▶ SAN FERMIN TXAPELKETA

## Barriolari eta Gonzalezi txapelak ihes egin die

Finalak ordu eta erditik gorako iraupena izan zuen eta ia 900 pilotakada jo zituzten

ERREDAKZIOA

Larunbateko finala hagitz gorrira izan zen, ordu eta erditik gorako iraupena izan zuen (ordu bat eta 42 minutu) eta ia 900 pilotada jo zituzten lau pilotariek. Hasiera batean Gonzalez eta Barriola irabazten hasi ziren arren, 6. tantotik aurrera Lekuineko eta Etxarriko pilotariek aurrea hartu zuten.

12. tantoan berdinketa lortu zuten lau pilotariek, baina hemendik aurrera Xala eta Lasa III.ak aurrea hartu zuten. Bukaera aldean nekea nabarmena zen eta pilotariek zenbait huts egin zituzten. Barriola gogor saiatu zen partida osoan

zehar eta txukun jokatu zuen, baina Gonzalezek ez zuen bere mailarik onena eman. Xala eta Lasa III.ak, aldiz, oso maila ona erakutsi zuten.

Joxe Antonio Olaetxea botileroak azaldu duenez, «larunbateko finala oso berdindua izan zen, nire ustez laurek nahiko ongi jokatu zuten. Partida luzea izan zen, baina dizdira pixka bat faltatu zitzaion». Abel Barriolari dagokionez, «oso ongi» aritu zela adierazi du. «Beharbada Sebastian Gonzalezek ez zuen bere egunik onena izan. Nik uste etsipena hartu zuela Xala eta Lasa III.ari minik egin ezin ziela ikusi zuenean».

ELDUAIN ▶ ERREMONTEKO KIDER TXAPELKETA

## Zeberio II.a eta San Miguel, txapeldunorde

Ezkurak eta Olazarrek 3 tantoren aldearekin irabazi zuten, 40-37 amaituz



Ezkurra eta Zeberio Kider Txapelketako finalean. HITZA

ERREDAKZIOA

Zeberio II.ari eta San Migueli Kider Txapelketako finalak alde egin die oso berdinduta egon zen norgehiagoka bat jokatu ondoren. Gora-behera asko izan zituen Uharteko Euskal Jaiei jokaturako partidak, eta 21. tantora arte, bi bikoteak gogor aritu ziren, tarteka Ezkurra eta Olazarrek aurrea hartuz, tarteka Zeberio II.ak eta San Miguelek.

21. tantotik aurrera, ordea, Ezkurra eta Olazarrek aurrea hartu zuten eta partida amaitu

arte distantzia hori mantendu zuten.

«Erritmo onarekin hasi ginen. Gehienbat nik huts egite asko egin nituen, ez nuen asmatzen tantoa bukatzen. Olazarri partida kargatzen hasi ginen, baina berak oso ongi erantzun zuen», dio Zeberio. «9. tantoan bizkarrean pilotakada eman zidaten eta arnasa moztuta gelditu nintzen. 25. tantotik aurrera errekupeatu nintzen baina beldurrez jokatu nuen. Halere ez nuke aitziarik jarriko, beraiek oso ongi jokatu zuten».

Miguel Sanz Nafarroako presidentea ere bertan izan zen eta adierazi zuenez, «Jose Javier Mugikari erail zutenean batasun demokratikoa bazegoen, baina gaur egun ez» zegoela

LEITZA ▶ POLITIKA

# Mugikari omenaldia egin diote erail zutela 6 urte bete direnean

Arratsaldeko 19:15ean hasi zen ekitaldia ETak duela 6 urte erail zuten lekuan eta 20:00etan meza egin zuten



Larunbatean Jose Javier Mugikari egindako omenaldian. ELENE ARRAZOLA/DIARIO DE NOTICIAS

ERREDAKZIOA

Joan den larunbatean Jose Javier Mugikari omenaldia egin zioten bere erailketaren 6. urteurrenean. Omenaldian 100 pertsona inguru bildu ziren, senitarteko, lagun eta Jose Javier Mugikaren alderdiko kideen artean.

Omenaldia 19:15ean hasi zen, eta 20:00etan meza egin bazuten ere, Mugika erail zuten lekuan egindako ekitaldian zenbait lagunek hitza hartu nahi izan zuten. Juanita Sagastibeltza izan zen lehenengo mintzatu zena, eta Mugikaren alde otoitz egin ondoren, terrorismoaren gainontzeko biktima guztiak gogora ekarri zituen.

Pello Urkiola izan zen, ondoren, hitz batzuk esan zituena. Bertso batzuk abestu zituen, eta hauetan Mugikari bere «espainiaritasuna eta nafarrotasuna defendatzeagatik eraila» izan zela esan zuen.

Miguel Sanz Nafarroako presidentea ere bertan izan zen eta adierazi zuenez, «Jose Javier Mugikari erail zutenean batasun demokratikoa bazegoen, baina gaur egun ez» zegoela

gehitu zuen. «Gainontzeko alderdiak etorri ez izanak atsekabetzen nau», gehitu zuen Miguel Sanzek.

Amaitzeko, Silvestre Zubiturrek Mugikaren alargunari lore sorta bat eman zion eta Mugika erail zuten lekuan jarritako plakan utzitako lore sorta batekin amaitu zuten ekitaldia. Ondoren, 20:00etan, meza bat egin zuten Leitzako elizan.

Politikari ugari

Askok izan ziren larunbatean Jose Javier Mugikaren omenaldira hurbildu ziren UPNren or-

dezkarri eta parlamentariak: Sergio Sayas, Maria Kutz, Fermín Alonso, Juan Luis Sanchez de Muniaín, Ignacio Polo, Ana Elizalde, Begoña Ganuza, Jesus Laguna, Miguel Martínez Faleño, Javier Soto, Javier Marcotegui eta Maria Jose Notorio (Altsasuko PSOEren zinegotzia). Hauetaz gain UPNren ondorengo ordezkariak ere larunbateko omenaldian izan ziren: Miguel Sanz, Nafarroako jarduneko lehendakaria, Alberto Catalan, UPNren jarduneko idazkaria eta Rafael Gurrea, Nafarroako Parlamentuko lehendakari ohia.

### BERRIaren edizio digitalean diseinatzaile/programatzaile bat behar da.

Erreferentzia: 2007 EH-DP.

Ezagarri hauek izan behar ditu:

- Ezinbestekoa da HTML, PHP eta MySQL programazio hizkuntzekin esperientzia izatea.
- XHTML eta CSSrekin maketatzen esperientzia izan behar du.
- Photoshop eta Flash programak ezagutu behar ditu.

Eskaizten da:

- Hiru hilabeteko kontratua (luzagarria).
- Lanean berehala hastea (abuztuan).

Bidali curriculuma gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora, erreferentzia zehazturik, uztailaren 20a baino lehen.



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Alegia.** Karmengo jaiak. 09:00etan herriko txistularien eta trikitilarien diana, eta jubilatuek antolatutako mendi marxa. 09:30ean, Giroarte dultzaina taldearen diana. 10:00etatik 14:00etara haur parkea Larraizko plazan. 11:00etan jubilatuentzat hamaiketako. Ondoren bertsolariak plazan: Jexux Mari Irazu eta Amaia Agirre. 12:00etan trikitixa plazan. 13:00etan apar festa eskolan. 16:30ean pilota partidak. 17:30ean haur jaialdia plazan, Txiki Truk taldearekin. Merienda eta jokuak. 18:30ean jubilatuen patata tortilla lehiaketa. 20:00-22:00 eta 23:00etatik aurrera Trakets, plazan. 00:00etan Txintxarrien erreketak.

**IRTEERAK**

**Berastegi.** Gaztainondo jubilatuek elkarrekin etziraiko kostaldara irteera antolatatu du: 09:00etan abiatu, Zarautzen geldialditxoa, Deba gidarekin bisitatu, bazkaria Zubikarai jatetxean eta Mutriku. Izen-ematea, elkartean. Antolatzailea: Gaztainondo jubilatuek elkarrekin **Tolosa.** Hilaren 27, 28, 29, 30 eta 31n Picos de Europa irteera antolatatu du Oargik. Torre de los Horcados Rojos, Pico Urriello, Peña Castil eta Torre de la Pardina igokoa. Izen emateko: 637 830380.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
 Irurtzun. Gastarena, M., Martirena, J. Amaia 4. 112.  
**Tolosa.** Oiarreaga, J. korreo, 2. 943 67 01 28.

**IRRATIA**

**Txolarre Irratia (107.5, 101.2 FM)**  
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZAREN errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
 18:00-20:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).  
 20:00-21:00. Goiko eskolatik betti.  
 21:00-22:00. Izarrak eta ilargia.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.



Irigoien, 125 kiloko harria jasotzeko une batean. P. RENOBALES



Atzo herriko dantzariak plazan saioa egin zuten. P. RENOBALES

# Txintxarriak isilduko dira

**ALEGIA ▶** Irigoien harri-jasotzailea izan da irabazlea Txintxarri sarian aurten: alegiarrek gaur izango dute festetako azken eguna txintxarria errez

**NEREA URBIZU**

**K**armen jaiei agur esango diete gaur alegiarrek. Txintxarria gauerdian erreko dute plazan ekitaldiz jositako egunaren ostean. II. Txintxarri harri-jasotzailea saria izan zen larunbatean eta Aimar Irigoien izan zen garaile. 21 urterekin harri txikien txapelketan garaile dela argi utzi zuen beste behin. Gipuzkoako saria lortu zuen duela bi aste. Larraizko plazan, berriz, Izeta

II.a, Izeta III.a eta Ostolaza lehiatu ziren. 125 kiloko bola, zilindroa eta kubikoa altxatu behar izan zituzten, eta Irigoien gaztea izan zen garaile, 76 altxaerarekin. Bigarren Izeta II.a izan zen, eta hirugarren Ostolaza 69 altxaerarekin. Gipuzkoako Bigarren Mailako trontzalarien txapela Garmendiak eta Iraolak eskuratu zuten, beste lau bikoteren aurka lehian eta lana 9,13 minututan eginda. Salegi eta Larrañaga izan ziren bigarren postuan.

Atzo euria izan zen herrian eta modu batera, herritarrek eskertu zuten, pasa den aste-buru beroa gogoratuta. Dantza izan zen nagusi, eta txarangak alaitutako musika kaleetan zehar. Arratsaldean umeek jolasak izan zituzten, arrantzarekin lotutakoak gainera. Mariatxien txanda ere izan zen, herritar batzuk kanta ezagunenak ere abestuz. Gaur bukatuko dira jaiak Alegian: baina egitaraua oso

beta osatu dute gaurko ere, eguneroko dianaz gain, haur parkea Larraitzen, patata tortilla lehiaketa jubilatuek, apar festa, pilota eta dantzaldia izango dira. Txintxarria ere erre beharko dute gauerdian, plazan bertan, eta musikarekin batera: Elena Zubillaga eta Mirari Mendizabal arduratuko dira horretaz. Datorren urteari begira izango da bat baino gehiago, aurtengo jaiak nahikoa izan ez direlakoan, nola hobetu pentsatzen.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
 Lorea Azkue Arsuaga (Irura). Gaur 2 urte. Muxu asko familiaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
 Garazi Alkain. Gaur urtebete. Zorionak etbekeen partetik, bereziki Aratz eta Joseba.

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...  
**hitza**  
 agurren tartea

**BIDAIA ALTERNATIBOAK**  
 Bidaiatzeko beste modu bat

Hegaldiarekin	...tik aurrera	Hegaldirik gabe
VENEZUELA 20 egun .... 2030€	Peru 17 egun .... 1805€	Bulgaria oinez 15 egun..... 1210
Vietnam 20 egun .... 2190€	India 16 egun .... 1200€	Yemen 18 egun .... 1580€
Uzbekistan 17 egun .... 1790€	Naminia-Bostwana-Zimbabwe 14 egun .... 700€	Hegoafrika - Lesotho 20 egun .... 1000€
Bolivia 16 egun .... 997€	Estatu Batuak. 16 egun .... 1218€	Canada 15 egun.... 1189€
Nepal 13 egun.... 558€	Myanmar 14 egun.... 760€	

Egitarru gehiago aukeran KONTSULTATU  
 Web orriko bazkilearen txokoa izena eraman eta bidia baten zozketan sartuko zara.

Egitarru gehiago aukeran KONTSULTATU

Segundo Izpizua 28 Donostia. 943 29 70 25 info@kultourbidaiak.com www.kultourbidaiak.com

**EUSKAL JAIA**  
**Billabona**

Uztailak 28  
 Larunbata

Billabonako Plazan

"SALTO ETA JAUI, EUSKARAZ BIZI!"

18:00etan Sagardo dastaketa pintxoekin laguntzarekin Laja, Eguren eta Ziular trikitilariak alaiturik  
 19:30etan BERTSOLARIAN: Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso  
 20,00etan ERROMERIA: Laja, Eguren eta Ziular trikitilariak  
 21,00etan Afari herrikoia plazan: **Zikiro Jana**  
 00'00etan ERROMERIA: Patxi eta Konpania

Garaiko euskal jantziekin parte hartzeraz animatzen zaituztegu  
**Zikiro janerako txartelak salgai: 20€**